

Euskaltzaleak,

Urte guziz bezala Euskaltzaleen biltzarrak ateraldi kultural bat proposatzen du.

Aurtengoa egingen da **uztailaren 23-an, Gasteizera**. Autobusa 7ak t'erditan abiatuko da **La halle d'Iratiko** aparkalekutik (*Miarritzeko aireportutik hurbil*). Jendea hartuko du ere, 7ak eta 45 etan xuxen, **Donibane Lohitzunen, Carrefour** saltegiari hurbil den kamioi aparkaleku batean. (*ikus juntatu plano.*)

-Gasteizen, Ibilaldia oinez egingen da, Katedral berritik abiatuz.

10ak t'erditan Eusko legebiltzarrean izan behar dugu. Gero, Andre Mari zuriaren Plaza ikusiko dugu, Zeledonen ongi etorria gabe haatik.

Ondotik, San Miguel eta Katedral zaharraren bisita.

-La **Bilbaina** ostatuan bazkalduko dugu, Artium museoaren ondoan.

-**Bazkalandoan nahieran** egingen du bakotxak: alde zahar-rarrean ibili edo bertze.

-**5 orenetan ttanko autobusak hartuko du etxerako bidea;** goizean gelditu toki berean izanen da.

Prezioa 40€

Izenak eman diruzainari uztailaren 15-a aitzin:

-Gutunez helbide huntara

Beñat Soulé Jauna,

Haltzagaraia

rue Haltzabea karrika

64480 USTARITZ

-Email ez edo gutunez: haltzagarai@orange.fr

Gutunean ez ahanzi txeka (Euskaltzaleen biltzarrari egina).

Email ez ematen dutenek hant berean pagatuko dute.



Gonbidapen

EUSKALTZALEEN BILTZARRA

2015-eko Uztailaren 23-an.

IBILALDI KULTURALA

Gasteizeko eusko-
legebiltzarra,

Zabaldutako gonbidapen hau zuen inguruan,
jakinik ateraldi osoa euskara hutsean egiten dela.

Bertzalde, Euskaltzaleen biltzarrak, aurten ere, liburu bat plazaratuko du : **Etxea eta etxeokak**.

Biltzar nagusia eta liburuaren aurkezpena udazkenean egingen ditugu. Orduan ere gurekin izanen zarete-lako itxaropenarekin, bidaia on opatzen dizuete Euskaltzaleen biltzarraren bulegokideek: Miren Amezttoy, Etienne Etche-to, Piarres Aintziart, Gillermo Etxeberria, Jean Claude Iribarren, Peio Jorajuria, Daniel Landart eta Beñat Soulé.

Mizel Jorajuria.

P.S. Bazkidetza 15€-koa da. Biltzar nagusia hasi aintzin ordaintzea aski da. Ibilaldiarekin batean pagatzen baduzu egin bitxeke diferente otoi, edo diru idorrez ordaindu.